

<b>OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA ASANBLADA</b>	
<b>Asanblada zk.: 3</b>	Data: 2024-01-23
	Ordua: 17:30-19:00
	Tokia: Udaletxeko bilera gela
<b>Gai ordena</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurreko aktaren onarpena</li> <li>• 2023 urteko plangintzaren balorazioa ta 2024 urteko kronogramaren aurkezpena</li> <li>• Oñatiko Emakumion kontseiluaren ekarpenen gaineko itzulera.</li> <li>• Ama bakarren gaiaren inguruan kontseilukideek eginiko hausnarketa partekatzea</li> <li>• Galdera eta eskaerak</li> </ul>	

### 1. Aurreko aktaren onarpena

Ahobatez onartu da

### 2. 2023 urteko plangintzaren balorazioa eta 2024 urteko kronogramaren aurkezpena.

Berdintasun teknikariak egin du 2023 urteko plangintzaren gaineko balorazioa, eta Berdintasun batzordeburuak 2024ra begirako lan ildo nagusiak aurkeztu ditu.

Kontseilukideak ados agertu dira adierazitakoarekin.

Gaineratu da, 2024 urterako zaintzaren gaineko hausnarketarekin jarraitzeko asmoa dagoela mugimendu feministaren partetik, eta Oñatin ere, azaroaren 30eko grebaren balorazioa egin ondoren, talde batek lanean jarraitzea erabaki duela. Herriko eragile ezberdinekin bilerak egiten ari dira, eta udalarekin ere errolda, etxebizitza edo bestelako gaiak lantzeko asmoaren berri eman da.

### 3. Oñatiko Emakumion kontseiluaren ekarpenen gaineko itzulera

Oñatiko emakumion kontseiluak eginiko proposamen taularen gaineko itzulera egin da.

Hauek dira mahai gainean dauden proposamenak, eta udalak gai bakoitzaren gainean bileran adierazitakoa:

proposamen zenbakia - nº propuesta	identifikatutako BEHARRA - <b>necesidad detectada*</b>	PROPOSAMENA - <b>propuesta</b>	Udalaren itzulera



<b>P002</b>	ZAINZAREN auzian urratsak ematen joan // ir dando pasos en relación al tema de CUIDADOS	EGOERAREN AZTERKETA: Zaintza diagnostikoa, elkarzabalekin lankidetzan. Nola ari dira antolatzen adinekoen zaintza lanak Oñatin? / análisis de la situación-diagnóstico, en colaboración con elkarzabal	Udal mailako lan taldea martxan da. Oraindik ez dago proposamen konkreturik garatuta.  P006.- Emakumion etxiaren eraikitzen prozesuan berariaz landuko da zaintzaren gaia.
<b>P003</b>		ERREFERENTZIAZKO ESPAZIOA. Zaintzaren behatokia sortu: zaintzaileentzat aholkularitza eta familiekin bitartekaritza / Un espacio de referencia; asesoría para las cuidadoras y acompañamiento a las familias	
<b>P004</b>		ALTERNATIBAK SORTZEA. Bidebarrerekin elkarlana zein puntutan dago? Horri jarraipena eman dakioke? // Crear alternativas. Cómo está el trabajo con bidebarri?	
<b>P005</b>		SENTSIBILIZAZIOA. Informazioa zabaldu eta familien sentsibilizaziorako // sensibilizacion	
<b>P006</b>		Aztertzea zein funtzio jokatu duen emakumion etxiak. (Emakumion etxiaren eraikitze prozesuan) // analizar qué función cumplirá la casa de las mujeres	
<b>P007</b>	INDARKERIA MATXISTARI aurre egiten dioten emakumeen arreta hobetzea // mejorar la atención a mujeres que enfrentan violencia	Prozesuen gaineko asebetetzea neurtzea, koordinazioa, arreta eta zerbitzuak baloratzeko, eta erronkak zehazteko // medir la satisfacción de los procesos; coordinación, atención y servicios	Gizarte zerbitzuetatik burutuko da 2024 urtean
<b>P008</b>	GURASO BAKARREN inguruko esku-hartze ildoak identifikatu // Identificar líneas de trabajo con familias monomarentales	Beharren azterketa bat egin (Jabetze eskolatik bideratutako talde baten bitartez egin daiteke?) // analizar necesidades	Kontseiluari eskatu zitzaion lan ildo hau gehiago definitu zezan
<b>P009</b>	Diru laguntzetan berdintasun klausulak txertatzea // incorporar cláusulas de igualdad en las subvenciones.	Azterketa bat egitea diru laguntzen genero inaktuaren inguruan eta diru laguntzetan txertatzen diren berdintasun klausulen eta hauen jarraipenaren inguruan // realizar un análisis sobre las cláusulas de igualdad en las subvenciones y el impacto de las ayudas.	2024 urterako bi helburu finkatu dira: cultura departamenduko diru laguntza guztien errebisioa, eta departamenduko diru laguntza guztien Formazioa

<b>P010</b>	HAPO prozesuaren jarraipena egitea //Seguimiento del proceso del PGOU	HAPOaren prozesuaren gaineko Informazioa ematea kontseiluari eta Projecta Urbes-ek aurrerakinean eginiko lana egungo dokumentuan nola islatu den azaltzea. // Informar sobre el proceso y sobre el trabajo de proyecta urbes.	Egintzat eman da
-------------	---	---	------------------

**4. Ama bakarren gaiaren inguruan kontseilukideek eginiko hausnarketa partekatu da.** Kontseilukideek eginiko lanaren berri eman dute, eta ama bakarren gainean lortutako zenbait datu partekatu dituzte asanbladan, bai eta zenbait ama bakarrekin eginiko elkarrizketetan adierazitakoaren berri eman ere. Lan eremu zabala da, eta politika publikoak zeharkatzen dituena. Ez da lan ildo konkretu bat adostu.

#### **5. Galdera eta eskaerak**

Ez dagoenez bestelako galdera edo eskaerarik, bilera amaitutzat ematen da 19:00etan.

#### TRADUCCIÓN

Podeis traducir el contenido de este documento en:

<https://www.euskadi.eus/itzuli/>

O solicitar una cita telefónica, para un resumen oral del contenido del mismo. [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus)